

...eta

# Kitto!

917 zkio.  
2015-I-30



## Erorketak saihestea helburu

**EUKi**

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
*preziorik onenean*



# Elgoibarko BARREN astekarirako KOMERTZIALA behar da

## ESKAITZEN DA

- Ordezkapen bat egiteko lan kontratua.

## ESKATZEN DA

- Euskara maila ona: ahoz eta idatziz.
- Lan taldean lan egiteko gaitasuna.
- Salmentarako eta jendaurrean lan egiteko dohainak.

## BALORATUKO DA

- Elgoibar edo ingurukoa izatea.
- Marketing ikasketak izatea.
- Autoa izatea eta ordutegi malgua.

Interesatuak bidali curriculumak otsailaren 6rako, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
Informazio gehiagorako: ( 943 744 112, Ainhoa)



...eta kitto!  
Euskara Elkartea  
komunikabideak@etakitto.eus  
Urkizu 11. 943 20 09 18  
[www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)

kamisetak 12 euro

sudaderak 25 euro

bazkideek 2 euroko deskontua bi produktotan



eta kitto

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

# ASTEAN ESANAK

"Aurtengo denboraldian bigarren aldia izan da *Onda Vascan* Eibar taldearen partida bat erretransmititu dutela, 24an gauean. Baina bigarren aldia baldin bada Eibarrentzat, Realaren aurkari izan delako da, ez bere merituentatik. Salagarría da Gipuzkoako kirolaren notario direla dioten esatarien jarrera. Elitista, donostiar zentrista. Txikia handi ikusten duen handiustekoaren mentalitatea, konplexuz bete"

(XABIER LASA,  
KAZETARIA)

"Zurichera bazoaz, grafiti pila bat ikusiko duzu, oso ondo egindakoak, hirian hip-hop asko eta bizikleta zein skate kultura handia dagoela iradokitzen dutenak. Euskal Herrian, aldiz, mezu politikoak ikusten dituzu, zaindu gabeak, apenas dago muralismorik, eta grafitiak gaizki egindako sinadura hutsak izaten dira"

(GALDER IZAGIRRE,  
BERRI TXARRAK-eko BATERIA)

"Harrigarriena da ziberoptimismo hau politikari ezkertiarrek ere gustura hartu dutela, esanez 'Interneten sortuko dugu espazio bat non ezker eskua baino indartsuago izango den'. Askok esajertzen da"

(VICTOR LENDRE,  
KRITIKARIA)

"Pixa zutik egitea ere genero marka da; egiteko modua berdindu beharko litzateke. Alemaniako etxe askotan oharra jartzen dute: 'Komun honetan eserita egiten da'. Azkarrak direla iruditu zitzaizkidan; ez dute aukerarik ematen"

(ADOLFO ERASO,  
GEOLOGOA)

KILI-MALA.- Makalik. "Gripia izan dabenetik kili-mala dabil gure amandria".

KINKIÑA JO.- Zerbaiti amaiera eman. Dirua xahutu. "Milla erriali kinkiña jo detsa gaurko ferixara juan biharrakin".

## eskutitzak

### FATIMAREN MIRARIA

Zurru-murru zaleak izaki, lau haizetara zabaldua zegoen aurten Fatima ministrak, urteroko ohitura apurtuz, pentsiodunoi ez zigula kartarik bidaliko gure pentsioak zenbat altxatu diren adieraziz. Aurten ere, beraz, txintxo portatu da Fatima anderea eta hemen albistea: 2015ean gure pentsioak altxatu egingo dira, 0,25%, iaz beste, beraz.

Zalantzaren bat bazegoen, honela ezabatuta geratu da. Bide batez ozenki adierazi du, hobekuntza hori guk "egindako ahaleginari zor zaiola, jokabide eredugarria eta konpromiso solidarioa erakutsi" baititugu urte hauetan. Gure sakrifizioari eskerrak, ekonomia eta enplegua suspertzen ari direla jakiteak atseginez betetzen du gure barrera. Pozten gaitu pairatu ditugun murrizketek laster fruitu bikaina emango dutela jakiteak.

Eta ahalegina ahaleginaz ordaintzen da. Gurea eskertzen duen bezala berak ere "ahalegin bat egin nahi izan du pentsioen balioa handitzeko, ahal izan den neurrian". Izan ere, pentsiodunok ez ginateke erantzukizunez jokatzeko ariko ministra andereari ezinezkoa eskatuko bagenio, jakinda -dakilgun bezala- ze nolako samina sentitzen duen neurri horiek hartzen dituen. Eta ez dezagun ahaztu "0,25% horrek 271,83 milioiko gastu gehiagarria ekarriko diola Gizarte Segurantzari". Ongi diozu, ministra anderea, askotan pentsiodunok ez dugu gogoan hartzen zenbat kostatzen den ematen zaiguna.

Urte hauetan gutxitan bezala ikusi ahal izan dugu sekto-

re ezberdinen eskuzabalasuna: banku, enpresari, armada, politiko eta langileena euren ere. Azken hauek, esaterako, beste sakrifizio batzuen artean, ordu gehiago sartzen ari dira ordainsari txikiagoaren truke, eta gainera jubilazioa 2 urte atzeratzea onartu dute. Pentsiodunok ezin genuen gutxiago izan. Agian utz genezakeen pentsio saria altxatu gabe, edo are gehiago, premia oso larria bada, zerbait jaitzi. Hilean kafetxo bat gutxiago hartuz, arazoa konpontzen lagun badaiteke, prest gaude, ministra anderea.

Baina behar-beharrezkoa dena soilik, ministra anderea. Zuk ongi ulertuko duzun bezala, bada zure eskutitzan kezka txikia sortzen diguna: "%0,25 igoko dira pentsioak, erretiro pentsioen balioa handitzeko 'indize berria' aplikatzearen ondorioz". Agian, ulertu behar dugu lehen Pentsioak igotzeko KPlren indizea erabiltzen zen bezala aurreantzean 0,25% izango dela? Baina ez duzu ba lerro batzuk gorago esan gure sakrifizioei esker "Gizarte Segurantzaren kontuen emaitzak hobetuz joango direla"? Hala den neurrian, aipatu adaketa hori ez da beharrezkoa izango.

Halere, aurreantzean indize berria aplikatuko balitz, ahaztu ezazu gutun hau eta E.Herriko Pentsiodunok helaraziko dizkizugu gure errebindikapenak.

Ez horregatik, ministra anderea.

**ARABAKO PENTSIONISTAK LANEAN, BIZKAIKO PENTSIONISTAK MARTXAN, GIPUZKOAKO DUINTASUNA ETA NAFARROAKO PENTSIONISTAK MARTXAN**

### ALKATEAREN BULEGOAN ZEIN TEMPERATURA IZANGO OTE DA?

Hau da nire buruari egiten diodan galdera. Izan ere, Alkatearen bulegoa bezala, nire lanpostua ere udal eraikin batean aurkitzen da, baina ezaugarri garrantzitsu batekin: nire lanpostua 25 neska mutilekin partekatzen dut, eurentzat euren ikasgela baita.

Azken bolada honetan, gure ikasgelan ez dugu temperatura egokirik izan, eta egoera hau areagotu egin da gabonetako oporren ostean, kanpo temperaturak jaitzi egin baitira.

Astelehen honetan hotza pasa dugu. Goizeko 9etan, 10°C zeuden, eta arratsaldeko 16etan 12°C. Asteartean, temperatura taula prestatu eta ordu ezberdinetan temperatura neurteari ekin genion: 9etan, 12°C, 11,30etan 13°C, eta 14etan 13°C. Gaur, asteazkena, goizeko 9etan 12°C. Alkate jauna, ba al dakizu, ikastetxeetan egon beharko lukeen temperatura 17 eta 24° Cen artean egon beharko lukeela?

**ITURBURUTIK, JON URROSOLO**



Euskara Elkarte

**ARGITARAZTZAILEA:** ...eta kito! Euskara Elkarte. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.  
**Astekararen E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /  
publizitatea@etakitto.eus **Elkartean E-MAILak:** elkarte@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus  
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.  
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.  
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez  
**BANAKETA-ARDUADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).  
**COPYRIGHT-A:** ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679  
("...eta kito!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Eguazten arratsaldiansiñatu eben udaletxian protokolua.

## Genero-indarkerixaren protokolua

Eguazten arratsaldian "Genero-indarkerixaren eta sexu-erasuen biktimeri arreta hobia emoteko erakundien arteko jarduerarako eta koordinaziñorako tokiko bigarren protokolua" siñatu eben udaletxian. Ekitaldixan, Miguel de los Toyos alkatiarekin batera M<sup>a</sup> Jose Lasa udaleko Berdintasun Sailleko eta Gizarte-zerbitzuetako teknikarixa, Heriberto Ramos Eibarko Ertzain-etxeko ikerketa-burua, Jon Kruzelaegi udaltzain burua, Eduardo Gonzalez Debabarrena ESI-ko gerentia, Alvaro Iruin Osasun Mentaleko zuzendarixa, Gema Gonzalez de Chávarri Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailleko lurralde-ordezkarixa eta Nerea del Campo andren alkartietako ordezkarixa batu ziran.

## Sei Anuaría sari Gorka Aizpuruarentzat

Bartzelonan bizi dan Gorka Aizpuru diseiñatzaile grafi-kuak sei sari jaso dittu Anuaría sarixetako azken ediziñuan. Diseiñu grafiatuan urtero banatzen dittuen Espaiñia maillako sarixak arlo horretako garrantzitsuenen artian dagoz eta "diseiñuko Goyak" be esaten detse. Eibartarrak Urrezko Anuaría sari nagusi bat eta hainbat kategoriatan zidarrezko beste bost eskuratu dittu. Diseiñatzailliaren lanak aurretik be sarritan saritu dittue Anuarían zein beste lehiaketa batzuetan eta urrezko sari nagusixa eta selekziñuetako bat emon detsazen pieza berberarekin oin dala hillebete batzuk LAUS sarixa irabazi eban.



## 120.000 euro enpresak sortzeko

Eskualdeko 19 enpresa barrik diru-laguntasuna, 120.000 euro totalian jaso eben iaz Debegesaren ekimenez, "Debabarrena Ekinean Funtsa" programaren baitan eta Diputaziñuak onartutako fonduari esker. Enpresa hórretan 32 lanpostu barri sortu zittuen eta 1'5 millioi euroko inbersiñua egingo dabela aurreikusten dabe.

## Hildako bi saihsbidian

Aurreko barixaku goizian, 08.45ak aldera istripu larrixa gertatu zan bariantian, automobil batek eta kamioi batek talka egittian. Automobilian Hezkuntza Esparruan bizi ziren hiru gazte zihozen eta euretako bi istripua gertatu zan tokixan hil ziran. Hirugarrena, barriz, zauri oso larriekin Donostiara, ospitalera eruan eben. Hiru gaztiak auto barruan harrapatuta geratu ziran Donostiarako norantzan bariantiak dakan bigarren tunelaren sarreran, Legarreakuan. Kamioi gidarixa onik urten eban. Goiz osuan errepidia moztuta egon zan eta eguardixan zabaldu eta segiduan beste auto bat errepidetik urten eban, bariantetik Estaziñora urtetzeko bidegurutze pareko bihurtunian. Eta bezperan beste istripu bat gertatu zan tunel berian, Suzuki Gran Vitara batek eta Ford Focus batek aurrez-aurre talka egittian. Hor ere Ford-eko gidarixa harrapatuta



geratu zan eta, suhiltzailliak etaratzia lortu ebenian Donostiako ospitalera eruan eben. Istripu horretan andra bat eta hiru adin txikiko zauri ariñekin Mendaroko ospitalera eruan zittuen.



**CENTRO OM ZENTROA**

Zezenbide, 1 - behea ezk. -EIBAR-

**REIKI SHIKI RYOHO**

**Felipe Arnaz Escudero**

**REIKI 1. MAILA:**

**OSABIDE NATURALEKO USUI SISTEMA**

Otsailaren 7an eta 8an (16.00etatik 20.30etara)

Kontakturako: **627 916 746 / 943 208 324** (plaza mugatuak)





- Reiki Maisua eta terapeuta: 2.975 Kolegiatua
- Kolegiatua Fenaco 2.999-an
- Fisioterapia Laguntzailea
- Reflexologia
- Teknikoa Kiromasaje eta Osteopatian (5.644 Kol.)
- Radioestesia Terapeutikoa (Emozioen askapena)
- Hastapena Reikira: I, II eta III Mailak eta Magisteritza




## Sanblasak bedeinkatzeko mezak

Datorren asteko martitzena San Blas eguna da eta, urtero lez, etxian egindako zein erosittako opillak bedeinkatzera juango dira eibartar morduak. Horretarako herriko eliza guztietan meza berezixak izango dira: lehelengua Karmengo Amaren elizan ospatuko dabe, 08.30xetan eta, hortik aurrera, goizian eta arratsaldian ospatuko dittue sanblasak bedeinkatzeko mezak: 10.30xetan San Agustin elizan; 11.00xetan, San Andres elizan, Karmengo Amaren elizan eta San Pio X.ian; 12.00xetan San Jo-



*Martitzenian goizian eta arratsaldian izango da sanblasak bedeinkatzeko aukeria. LEIRE ITURBE*

se Obrero-n (Urkin) eta El Salbadorren (Amañan); eta azkena 19.00etan Karmengo Amaren elizan izango da.

## Bixar zabalduko dabe interpretaziño zentrua Arraten

Gerra Zibillaren interpretaziño zentruak eta Arrateko aterpetxiak bixar eguardixan, 12.00xetan zabalduko dittu atiak, juan nahi daben guztiendako irekixa izango dan ekitaldixan. Zentrua preparatzen biharrian jardun daben Jesus Gutierrezek eta Jose Luis Valenciagak egingo dabe presentaziñua eta, aurreratu dabenez, aterpetxian zabalduko daben Gerra Zibilla Eibarren Interpretaziño Zentrua trintxera baten moduan atondu dabe eta, gure mendixetan gerra zelan bizi eben hobeto ulertzen laguntzeko ikus-entzunezkua egin dabe, lekuko zuzenen testigantzekin. Zentrutik kanpora be egongo da zer ikusi, bestiak beste sei panel, lau Arratera begira eta beste bi Akondia aldera ipiñi dittue eta. Panelotako informaziñua QR kodiguak erabillitta konsultau leike. Eta ibilbide historikua be preparau dabe: otsaillaren 7xan (gazteleraz, dagoeneko beteta), otsaillaren 28xan (gazteleraz) eta otsaillaren 21ian eta martxuaren 7xan, barriz, euskeraz egingo dira. Izena emoteko Portalera jo leike (943708435 telefonora) edo kultura@eibar.net helbidera idatzi.



## Amañako zozketako irabazlia

Amañako jai batzordiak saldutako errifaren zozketan irabazlia Ixi-dro Gabirondo izan da, urtarrillaren 11ko ONCE-ren zozketako azken lau zenbakixak (7046) berak erosittako txarteletako batek zittuan eta. Eguazten goixian jaso eban sarixa Jose Antonio Alberdi "Goma" jai batzordeko ordezkariaren eskutik.



## autuan

### AUZOBIRA ABIAN

Eibarko EH Bilduk Auzobira ipiñiko dau martxan, "maiatzeko udal hauteskundieri begira prestatu dittuen proiektuak herriko auzuetan aurkeztu eta auzotarren ekarpenak jasotzeko". Horrekin batera, azken urtian landu dittuen 70 proposamen barrixak be presentauko dittue eta, horretarako, 8 panel erabilliko dittue. Gaur 18.30xetatik 20.30xetara Ipuruako dorrien artian egongo dira eta bixar, barriz, Urkin (11.30xetatik 13.30ra, Cepa taberna parian).

### FAKTURA ELEKTRONIKUA

Udalaren eta bere entidade autonomuen hornitzailliendako faktura elektronikuari barrikuntzak egin detsez. Araudi barrixa aplikauta, hillaren 15ian abiatu zan Gipuzkoako fakturen sarrera puntu orokorra (FSPOe). Puntu horrekin, hornitzailliak eta kontratistak Gipuzkoako Herri Administraziñuari bidaltzen detsen faktura elektronikuak jasoko dira. Informaziño gehixago [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) webgunian.



## JULIANA MANDIOLA MAGUREGI

(2015eko urtarrilaren 18an hil zen)

**"Isil-isilik ibili zara bizitzan eta ibili bezain isilik joan zara gure aldetik"**

*SENIDEEN IZENEAN, ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.*

asteko

3.692

datua

umek, iaz baiño %15'45k gehixagok erabili eben txiki-parka Gabonetan zabaldu eben 8 egun eta erdixan; gehixenak, %88'32 dendarixen bonuarekin musutruk sartu ziran; danera 56.500 bono banatu zittuen.

## ...eta kitto!-rekin Santa Ageda batzen

Herriko beste talde batzuk egitten dabena moduan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak be Santa Ageda bezperia ospatu nahi dau aurtan. Horregaittik guraso eta umiak animau nahi dittu otsaillaren 4an egingo dabena kalejira parte hartzeko. Arratsaldeko 19.00etan Ibarburutzeko itturitik abiatuko dira kalejira, koplak kantatzen, Urkizuraño. Kalejira ...eta kitto!-n mokadutxo bat janda amaittuko dabe. Aurretik, baiña, nahi dabena gaur 17.30xetatik 18.30xetara ...eta kitto!-n bertan egingo dan entsegua parte hartzeko aukeria dauka (makilla eruan). Eta kalejirara, makilla eruatia ezeze, basarritar jantzitta juateko edo zapixa eruateko eskatu dabe antolatzailliak. Parte hartu nahi dabena 943200918 telefonora deittu leike.



Urkizun amaittuko dabe Santa Agedaren omenezko kalejira Sostoakuak. LEIRE ITURBE

## Sostoakuen entsegu irekixa

Sostoa abesbatzak 19.00etan ekingo detsa Santa Agedaren omenezko kalejirari, Ego Gain kalia (El Corte Ingles barrixaren inguruan). Han hasi eta 22.00ak bittartian, herriko erdialdian kalerik kale kantuan ibilliko dira, Urkizura bajau arte. Santaeskia dala eta, martitzenian 21.30xetan entsegu irekixa egingo dabe, iñoiz Sostoarekin batera kantatzen ibillittakuak kopleri erreapasua emoteko aukeria euki deixen. Entsegua Musika Eskolan, Portalean izango da.



## Muslari bikote bi Gipuzkoara

Aurreko asteburuan, domekan Klub Deportibuan jokatu zan Euskal Herriko VII. Mus Txapelketan bikote bi sailkatu ziran Gipuzkoako kanporaketetarako: Gaizka Unamuzaga-Vayera Aizpiri eta Josu Plazaola-Jon Zubizarreta. Depor tabernakuak esan deskuenez, "giro politta egon zan, pareja guztiak gaztiak izan ziran eta horrek animau gaittu hamendik aurrera Klub Deportibuan mus txapelketak antolatzeraz".

## Eibarko Sare santaeskian



Eibarko Sarekuak be santaeskian urtengo dabe Santa Ageda bezperan (otsaillaren 4an), 18.30xetan. Hónek Amañan, Ipuruan eta erdialdian ibilliko dira eta, azaldu dabenez, herritarren alkartasunaren premiña dake, "Guardia Zibillen 'sakeuaren' ostian, urtarrillaren 10eko manifestaziñuak eragin-dako gastuengaittik egoera ekonomiko oso larrixan gagoz eta". Horregaittik, bakotzak ahal dabena neurrixan dirua emoteko kontu korrontia zabaldu dabe Euskadiko Kutxan (ES89 3035 0012 77 0120111969). Eta sarekidia be bihar dittue, "danon giza eskubidien alde eta batez be euskal presuen dispersiñuaren kontra biharrian jardungo dabena Sare herritar erraldoia osatzeko". Animau ezker eibarkosare@gmail.com helbidera idatzi edo, bestela, sare.eus webgunian sartu leike.

## FELISA ZUBIAURRE ARRIZABALAGA

-Ramon Agirregomezkortaren alarguna- (2012-I-29)



3. urteurren MEZA:  
otsailaren 1ean (domeka),  
12.00etan, San Andres parrokian



*Astelehenean "Erorketak prebenitzeko tailerraren" lehen saioa hartu zuen Untzagako jubilatutako etxeak, parte-hartze handiarekin. Udaleko Gizartekintzak eta Kirol sailak, Osasun zentroa eta sailarekin elkarlanean antolatutako tailerra osatzen duten bi saioetan profesional ezberdinek hitzaldi laburrak emango dizkiete jubilatuei, azaldutako aholkuei jarraituta ahal dela erorketak saihesteko. Maite Urbieta erizainak tailerraren eduki nagusiak laburbildu dizkigu.*

**MAITE URBIETA ARRIOLA, erizaina:**

## **"Zahartu arren, erorketak ez dira normaltzat jo behar"**

**- Sarritan gertatzen da nagusiak jaustea?**

Nahiko sarritan jausten dira, nahiz eta askotan kontsultara etorri eta guri ezer ez esan. Adin batetik aurrera, gainera, erorketak gertatzea normaltzat jotzen dute, baina hori ez da horrela. Urteak betetzen joan arren, ez dago zertan jauzi, denborarekin erorketak osasun arazoa bihurtzen dira eta.

**- Nola saihestu daitezke adinari lotutako erorketa horiek? Nolako gomendioak ematen dituzue?**

Guk prebentzioa maila ezberdinetan lantzen dugu eta, lehen mailan, erorketarik ez gertatzeko egiten ditugunak daude. Lehenik eta behin, sendagile eta erizainok balorazio bat egiten dugu eta, horretarako, gauza ezberdinei begiratzen diegu: bihotzeko gaitzen bat dagoen ala ez, demenztzarik duen, bakoitzak duen gaitasun funtzionala nolakoa den, zenbateko menpekotasun maila dagoen, maila kognitiboan kalterik dagoen, nolako baliabide sozialak dituen... Horiek guztiak eta beste batzuk baloratzearekin batera, etxea bera ere baloratzen dugu. Etxea nolakoa den ikustera, bisitan joaten gara eta, ikusten ditugun arriskuak eta beste hainbat gauzaren inguruan balorazioa egiteaz gainera, horiek konpontzeko planifikazioa ere egiten dugu.

**- Bakoitzaren osasuna nolakoa den, horrek zeresan handia izango du jausteko arrisku gehiago ala gutxiago izateko, ezta?**

Bai, bakoitzak dauzkan gaixotasunak zeintzuk diren ikustea oso garrantzitsua da. Adibidez, arritmiek, tentsio baxuak, bertigoek eta beste gaixotasun batzuek zorabioak eragin ditzakete eta, ondorioz, erorketak gertatu daitezke. Ikusmenarekin eta entzumenarekin lotutako arazoei ere arreta berezia ipini behar zaie, sarritan begiratzea komeni da, horien inguruko balorazio on batek arazo asko saihesten lagundu dezakee-

lako. Betaurrekoetan graduazio egokia izatea edo ondo entzutea benetan zaindu beharreko gauzak dira.

**- Horiekin batera zer gehiago zaindu daitezke erorikoak saihesteko?**

Dieta egokia jarraitzea eta ariketa fisikoa egitea ere oso garrantzitsuak dira, horiek zaintzea ezinbestekoa da orekari eta mugitzeko gaitasunari eusteko. Eta, horrekin batera, oinak zaintzea eta oinetako egokiak erabiltzea ere oso garrantzitsua da.

**- Erori eta gero, asko beldurtu egiten dira. Nola egiten zaio aurre berriz erortzeko beldurrari?**

Horrelakoetan errehabilitazioa ahalik eta azkarren egitea komeni da. Bestela, beldurra gero eta handiagoa izaten doa, beldur horregatik lehen egiten ziren gauza asko egiteari lagatzen diote, horrek autonomia galtzea dakar eta, ondorioz, erortzea lehen baino errezago gerta daiteke... Horrelakorik ez gertatzeko, zirkulua lehenbailehen apurtu behar da.

**- Non jausten dira gehiago, kalean ala etxe barruan?**

Datu zehatzik eduki barik ere, nik esango nuke etxean kalean baino gehiago erortzen direla. Askotan kontrakoa iruditzen zaigun arren, etxe barruan erorketak eragin ditzaketen arrisku ugari egoten dira: alfonbrak, alde batetik bestera lurraren gainetik doazen kableak...


**- Tailerretan, besteak beste, teleasistentziaren berri ematen duzue. Nola funtzionatzen du zerbitzuak?**

Eusko Jaurlaritzak ematen eta udalak Gizartekintza sailetik kudeatzen duen zerbitzua da. Berez menpekotasunen bat duten 65 urtetik gorakoentzat, bakarrik bizi diren 75 urtetik gorakoentzat, ezintasunen bat dutenentzat eta harreman sozial oso murriztak dituztenentzat pentsatutako zerbitzua da eta erabiltzeko oso erraza da: eskatzen due-



nari ematen zaion dispositiboa telefono finiko baten lineari konektatu egiten da eta, edozein arazo izanez gero, botoiari sakatu eta zentralitatik zer gertatzen den galdetzeko deitzen dute. Inork ez badu erantzuten, zuzenean larrialdi zerbitzuekin harremanetan ipini eta etxera bidaltzeko abisua pasatzen diete. Urteko 365 egunetan 24 orduz martxan dagoen zerbitzua da eta erabiltzen dutenak oso pozik daude.

25 urte beteko dira aurten Antxon Narbaiza eibartarrak herriko gatzizenak liburu batian batu eta kaleratu zittuala, Ego Ibarra batzordiares eskutik; egixa esateko, komisiño horrek argaitaritzen zeban bigarren liburua zan Narbaizarena, Jose Manuel Unanueren "Eibar: gaiak, idazlanak" liburuaren atzetik. Euskal filologua, irakaslia, itzultzaillia, ipuinlarixa... Antxonek geruago be hainbat publikaziño etara dittu... eta oin be ez dago geldi, badittu proiektuak esku artian. Batuketa hartatik mende laurdena pasau dala konturau barik harrapatu dogu egillia, baiña badittu goguan sasoi hartan bizi izandako hainbat pasadizo. Aldi berian, ilusiñua egin detsa herriko euskaltegixak urtero egitten daben lehiaketarako gatzizenak hartzia gai moduan. Data aproposa da oingua, beraz, gatzizenen liburua errepasatzeko eta hortik gehixen gustatzen jatzuenarekin lehiaketan parte hartzeko: sari bi dittuzu zain.



## Mende laurdena herriko GATXIZENAK batu zirala

**B**estelako mundu bateko irudixa" emoten dau gatzizenen erabilleriak, Antxon Narbaizak dioskunez: "Mundu bat pre-industrialia eta industrialia batzen dittuana. Baita sasoi hartako jendiaren arteko hurbiltasuna, ixa famelixa bakotxak gatzizen bat edo beste zekana". Antxonek bere aittaren soziedadian hasi zeban gatzizenak batzeko lana: "Zatixa soziedadian. Billatutakuekin galbahe lana be egin neban, kontenporaneuak eta baztertuta. Batez be, bittan banatu geinkez hórrek gatzizenok: heredatzen ziranak al-

de batetik, famelixakuak; eta pertsonalak bestetik. Aurrekuak onartzen ziran moduan, baeguazen pertsonalen artian eurei gustatzen ez jakozenak", diño Narbaizak.


Millatik gora gatzizen batu zittuan 1990ian Antxonek. Beste sasoi batzuk ziran, "ordena-gaillurik be apenas", eta sailkatze lanak bakarrik denbora asko kendu zetsan egilliar: "Izenak alfabetikoki ordenatzeko prozesadorian be hasibarrixa nintzan". Ahozkuakin batera, XIX. mendeko idazkixetan aurkittu zittuan asko: "Gatzizenena oso errotuta eguan

### EGILLIAK ORDUAN ESANDAKUAK, Idoia Irazolak egindako alkarrizketian

"Egin doten bilduma edo jasoketa klasifikaziñuan ehun urte inguruko gatzizenak agertzen dira. Lehengo gatzizenak testigantza bat dira; oin dagozenak, ostera, izen propio edo pertsonaje famosuetatik etaratakuak dira. Baiña ez dago gatzizen ondarerik edo patrimonialak esaten jakuezenetakorik. Gaurko gatzizenak pertsonalak litzakez; baiña ez familiarrak, lehenguak moduan"

"Lehelengo prospekziño bat egin neban. Hori zerrendiori nik ezagupidia dakadan pertsonen bittartez egin dot. Eta hori egin eta gero, kalez-kale eta, estrategikoki, goikaldekueri eta behekaldekueri entregau netsen. Soziedadietan be ibilli nintzan... milla gatzizen ingurutik gora jasotzeko. Piska bat geldittu egin nintzan... ze lan haundixa zan horrek guztiak orden alfabetikuan jartzia"

"Beste gizarte bat islatzen dabe gatzizenok, gizarte edo soziedade pre-industrial bateko izakeria. Ze gizartia edo soziedadia gaur egunian atomizau egin da eta ez dogu alkar ezagutzen. Lehen herrixan gatzixena zan pertsona bat identifikatzeko, kanpotik zetozenak ezagutzen ez zebena. Baiña herriitik kanpora ez zeben urtetzen gatzizenek, herriko orbitan gelditzen ziran beti"



Calbeton kaleko bodegan zeguan kuadroko protagonista guztiak zeken bere gatzixena.



## EIBARKO GATXIZEN LEHIAKETIA

**Udal Euskaltegixak eta AEK-k, Udalarekin alkarlanian, Eibarko gaitxizenen lehiaketia antolatatu dabe.** Jendiari gehixen gustatzen jakon Eibarko gaitxizena aukeratzeko lehiaketia izango da: parte-hartzaillae bakotxak berari gehixen gustatzen jakon gaitxizena aurkeztuko dau, eta jendiaren botuen bittartez jakingo dabe antolatzailliak zein dan jendiari gehixen gustau jakona. Laguntasun modura, Ego Ibarra batzordiak 1990. urtian argittara emon eban Antxon Narbaizaren "Eibarko gaitxizenak" liburua erabiltzia gomendatzen dabe.

### PARTE HARTZEKO

- Parte hartu nahi dabenak Eibarko gaitxizenetatik gehixen gustatzen jakona proposatu biharko dau. "Eibarko gaitxizenak" (Antxon Narbaiza. Ego Ibarra) liburuan asko dagoz eta, liburu hori konsultatzeko, Juan San Martin Udal liburutegira, Udal Euskaltegira edota AEK-ra jo leike.
- Gaitxizenak euskaltegixetara edota liburutegira juanda aurkeztu leikez edo, bestela, posta elektronikoz euskaltegia@eibar.net / eibar@aek.org helbidietara bialdu.
- Ez da biharrezkoa gaitxizena zergaittik aukeratu dan arazoitzia.
- Gaitxizenak aurkezteko epia otsaillaren 15ian amaittuko da.
- Ondoren, gaitxizenik gustokuena zein dan aukeratzeko botaziñua egingo da. Botua www.eibarko-euskara.com webgunian emon biharko da, martxuaren 1a bittartian. Aurkeztutako gaitxizenen artian gustokuena aukeratu eta botua emon, ez da besterik egin biharko.
- Sari bi banatuko dittue, jasotako boto-kopurua eta epaimahaixaren eritzixa kontuan hartuta: irabazliandako sarixa Coliseoko emanaldi baterako sarrera bik, Armagintza Museorako beste bik, Kalamuako Parlamentua jokuak eta Gotzon Iparragirrereren "Eibar Oasi Liberala" liburuak osatuko dabe; eta parte hartzen daben artian egingo daben zozketan etarutzen dabenarendako udalaren argitalpenak emongo dittue.

eta, idatzixetan, izen-abizenekin batera askotan figuratzen zeban pertsonajiaren gaitxizena". Gogoratzen dau zelan 1910.eko testu batian, lau maisuen izenak ekartzen dittuan batian, euretako hiruk gaitxizenekin aittatzen dirala: "Orduan zor zetsen errespetuarekin! Eta gaitxizena zeken. 'Eskeletiña' zan bat". Toribio Etxebarriaren eta Juanito San Martinen idatzixetara be jo zeban Narbaizak: "Toribio, dana dala, oso errespetuosua zan erabiltzerakuan".

### Erraztasuna gaitxizenak sortzeko

Gitxi izango ziran sasoi bateko Eibarren gaitxizenik ez zekenak. Antxonek bere liburuan hórrek izenok sailkatu egin zittuan: lanbidiak, izen ospetsuak, deskribapen fisikuak, txori eta hegatzixen izenak, janari-izenak, animalixen eta insektuen izenak, arraiñak, jatorrixa adierazteko, objektuekin egingo dakuak, deskribapen ironikua zekarrenak eta beste asko. Toribio Etxebarriak jasotzen zittuan batzuk bere "Ibaltarixanak", "El País de



**Antxon Narbaizak 1990ian kaleratu eban gaitxizenen liburua. Oñi gustora hartu dau euskaltegixen ideia barrixa.**

los Recuerdos" eta "Lexikoian". Narbaizak diñoskunez, Eibarko berezittasun moduan, "asko ziran enpresako lanabesen inguruak, Tragamakinak eta halakuak. Batek pieza apurtu eta gero erriala ordaindu bihar zanez, hor geratu zan 'Tak eta erriala'; eta haren semia 'Taketa'. Erraztasun ikaragarrixa eguan gaitxizenak sortzeko. Sasoi hartako pertsonajak be hartzen ziran: Txarlot zan bat, geruago beste bati Kubala ipiñi zetsen... Euskaraz bizi zan sasoi xa eta, ahalegiñak ahalegiñ, urrin gagoz oindiok. Eta, kanpotik etorrira, 'amuarraña' esaten asmatzen ez zebanari 'truxia' deitzen zetsen eta akabo!". Ohitturia, gaiñera, oso onartuta zeguan herrixan.

Gehixenak euskerazkuak izan arren, bada goz gaztelerazkuak be, "euskal ikutuarekin askotan". Elgeta Txikixa bere soziedadian sartu eta han eguazeneri 'pum, pum' tirua jaurti baleu moduan egin zebanian, batek esan zetsan: 'Neri, Beliari, jaurti estak tirua, hamen Birigarrua eta Zozua egonda?'.



Funeraria Ehorztetxe  
**Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b> Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b> SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



**PUBLI RESA**

- Pin-ak  
 - Metxeroak  
 - Kamisetak  
 - Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta  
ENPRESETAKO OPARIAK

**Armagin 3 - behea**

☎ eta faxa: 943 70 14 97      [publi.resa@euskalnet.net](mailto:publi.resa@euskalnet.net)

## LAN ESKAINTZA

*Pertsona bat behar da Eibarko taberna batean sukaldean laguntzaile lanak egiteko asteburuetan*

**Bidali curriculum-a argazkiarekin:  
40 postakutxatila 20.600 EIBAR**

## Lanbide Heziketako ikasleak Ikasenpresa azokan

Datorren asteko egunean, hilaren 5ean, Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako ikasleak Untzagan egongo dira, Ikasenpresa azokan eurek sortutako enpresa proiektuak aurkezten. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza eta Kultura Sailak, Teknikak (Lanbide Heziketarako berrikuntza zentroak) eta Eibarko udalak antolatutako azoka goizeko 10.30-etatik 13.30-etara egongo da zabalik eta, ikasleek klasean sortutako enpresak bertatik bertara ezagutuz gain, gerturatzeko direnek enpresa proiektuetan eskaintzen dituzten produktu ezberdinak erosteko aukera ere izango dute. Ekimenaren arduradunek azaldutakoari jarraituta, "Ikasenpresa programa ikas-

geletan eskola-enpresak sortzearen inguruan garatzen den hezkuntza-programa da. Proiektuaren helburuen artean, besteak beste, enpresaren mundua ikasgeletara etortzea eta ikaslearen gaitasun ekintzaileen (sormena, berrikuntza, talde-lana, erabakiak hartzea, ekimena, lidergoia, konpromisoa, irmotasuna, negoziazioa...) garapena sustatzea daude". Azokan 133 parte-hartzaile izango dira, Eibarko PCPI-ko beste birekin batera. Ikasturte honetan 46 ikas-tetxe daude proiektuan eta 325 "ikasenpresa" sortu dira. Izan ere, Eibarren Lanbide Heziketa ikasten dihardutenekin batera, Euskal Herriko beste herrietatik etorritako ikasleak izango dira azokan parte hartzen.



**Ikasenpresa azokan Lanbide Heziketako ikasleek sortutako enpresak eta horien eskaintza ezagutzeko aukera izango da . SILBIA HERNANDEZ**

Ikasleek enpresa txiki bat sortzeko beharrez jarduten dute klasean, enpresarako ideia sortzeko hasi eta produktu errealek merkaturatzeko gai den enpresa martxan ipini arte, prozesuan eman beharreko pauso guztiak (irudi

korporatiboa sortu, administrazioaz arduratu, merkataritza landu...) emanda. Eta urtean behin antolatzen den Ikasenpresa azoka ikasleek beharrez eman dituen fruituak ezagutzera emateko primerako erakuslehoia da.

## Piano eta gitarra ikasleen jaialdia

Datorren asteko barixakuan, 20.30etan Coliseo antzokiak Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleen piano eta gitarra jaialdia hartuko du. Beste urte batzuetan ere horrelako jaialdiak antolatu dituzte, baina aurtengo berritasun nagusia pianoa eta gita-

rra, instrumentu biak batzean datza. Izan ere, Musika Eskolako ikasleen artean arrakasta gehien duten instrumentuak bi horiek dira eta datorren astean eskainiko duten jaialdia "ikaslearen garapena erakutsiko duen errezitala" izatea nahi dute antolatzaileek. Casilda Txurruka eta Ana Maria Caballero irakasleek zuzenduko dute kontzertua eta sarrerak bost euro balio du. Coliseoko jaialdia, bestalde, primeran etorriko zaie pianojole gazteei otsaila amaieran Andoainean egingo den lehiaketarako prestatzen joateko. Hala ere, eta urteroko martxari jarraituta, handik bi egunera, otsailaren 8an, 12.30etatik aurrera bakarrik piano ikasleen kontzertua hartuko du Coliseoak (sarrerak hiru euro balio du).



**Aurten ekitaldi berean hartuko dute parte piano eta gitarra ikasleek.**

## MAIALEN LOPEZ IGLESIAS


### 5. URTEURRENA (2010-I-30)

MAIALEN, ZURE IRRIBARREA EZ DUGU AHAZTEN.

Aitaren eta amaren partez.



Kanpoko  
hotzaren  
aurrean...



...ETXEAN  
BERO-BERO

2015eko  
urtarrila

fonta.amana@gmail.com



**AMAÑA**  
FONTANERIA

BAINUEN INSTALAZIOA ■ SUKALDEA, GASA ETA KALEFAKZIOA ■  
BAINUEN DISEINUA ORDENADOREZ ■ AIRE EGOKITUA

T. Anitua 12 Tel. 943 201 930

Gasa. Kalefakzioa. Klimatizazioa. Eguzki Energia



Tel. 943 206 913  
615 782 638  
615 782 637  
Faxa. 943 254 929

**Jardines Iturgintza**

Jardiñeta, 11 B fontaneriajardines@euskalnet.net



MUGICA  
ITURGINTZA FONTANERIA

943 20 10 30  
www.mugica-sa.com

Gas Berokuntza  
Lur Bero  
Klimatizazioa  
Eguzki Energia  
Geotermia  
Kogenerazioa  
Energia Azterketak

Gas  
Calefacción  
Suelo Radiante  
Climatización  
Energía Solar  
Geotermia  
Cogeneración  
Estudios Energéticos



**MUGICA**  
ITURGINTZA

Tfnoa. 943 20 10 30  
Faxa. 943 20 72 24

**Helbide**  
**Egiguren tarren, 18**  
**berria**

## Briketa eta pelleta: erregai ekologikoak

**N**eguko hotzari aurre egiteko, erregai ekologikoak erabiltzea da aukeretako bat. Betiko su egurarrekin batera, gaur egun badira beste aukera batzuk, **briketa** eta **pelleta**, esate baterako.

Egurraren zerrautsa konpaktuarekin lortzen den pieza da briketa. Neurri uniformeak izaten dute briketek. Egurrak baino ahalmen handiagoa du; errezago eta azkarrago hartzen du sua. Egurrak baino leku gutxiago hartzen gu gainera. Egurrak baino errauts gutxiago sortzen du, eta usain, ke eta sugar gutxiago eragiten du briketak. Egurraren aldean badu desabantaila bat: garestiagoa da.



Pelleta beste erregai ekologiko bat da, briketaren parekoa. Zerrautsarekin eta txirbilarekin egindako pieza txikiko erregaia da. Briketa bezala, beroaren bitartez prentsatzan eta lehortzen da, eta egurraren ligninaren bidez aglomeratzen da. Pelleta zakuetan edo soltean saltzen da. Energia garbia da eta pilatzeko leku gutxi behar du. Hori bai, briketa bezala, pelleta ere egurra baino garestiagoa izaten da.

Pelleta erabiltzeko, dena den, berogailu berezia behar izaten da. Hiru motor izaten ditu pellet berogailuak, beraz, argi indarrerako konexioa beharrezkoa du. Pelletak ia ez du kerik sortzen eta egurrezko tximiniak ez bezala, gasa kanporatzeko sistema bakarrik behar du. Autonomia handia eskaintzen du, berogailua behin pelletaz betez gero, 10 orduan funtziona dezake. Potentzia berak erregulatzen du.

# SARGORI

## BEROKUNTZAK S.L.

**GAS ETA KALEFAKZIO INSTALAZIOA  
ITURGINTZA / MANTENIMENDUA  
AIRE EGOKITUA / ATERATZE ETA AIREZTAPENA**

**San Agustin, 2-4 - J lokala  
Tel. 943 53 02 01 Faxe. 943 53 15 03**



**ELEKTIBAR, S.L.U.**  
**ELEKTRIZITATEA**  
**PROIEKTUAK**  
**ARGIZTAPENA**  
**INSTALAZIOAK**

\* Denetariko **ERREFORMAK**

\* **TELEKOMUNIKAZIOAK**

\* **ATE AUTOMATIKOAK**

\* **BERO URDINA**

**JOSU BENGEOA**

Indalezio Ojanguren 2, behea EIBAR

☎ 943 70 05 42 Faxe: 943 53 02 31 electibar@gmail.com

Aurrekontuak konpromezurik gabe



**IRABAN S.L.**  
**LEIHO ISOLATZAILEAK**

**LEIHOAK ALDATZEA PENTSATZEN ARI ZARA?**

Merkatuko leiho **ISOLATZAILEENETAKO** bat daukagu

**Schüco SI 82** leihoa

Ikusi zuk zeuk gure erakusketa bisitatuz

**Gure prezioek eta materialek harrিতuta utziko zaituzte...**

**Juan Gisasola, 6 - EIBAR**

**943 11 18 22**



Tecnología PassivHaus



**efiven**

Leiho eraginkorrak  
eraikuntza jasangarri  
baterako



Certified  
Passivhaus Institute  
**SCHÜCO**



CO<sub>2</sub>  
Carbono

**U=0,8 W/m<sup>2</sup>K**



**SCHÜCO**

Serie SI 82

Planeta **urdinerako** Green Technology

[www.iraban.webs.tl](http://www.iraban.webs.tl)

## Nola aukeratu leihorik egokiena?

**E**txean erreformaren bat egin eta leihoak ere aldatzea erabakitzen dugunean, ondo gogoan hartu behar ditugu alderdi hauek:

**Irekitze sistema:** Hauxe da hartu beharreko lehen erabakietako bat. Leku handirik ez badugu edo leihoaren ondoan altzariren bat jarri nahi badugu, ez da egokia jartzea barrurantz irekitzeko moduko orriak dituen leiho bat. Kasu honetan, egokiena, kanporantz irekitzen den leihoa edo labain-leihoa jartzea da.

**Profilak:** Hauen diseinua eta fabrikazioan erabilitako materiala erabakigarriak izango dira isolamendu termiko eta akustiko egokia lortzeko. Material guztiek daukaten transmitantzia termikoaren balioaren (U balioa) arabera, material bakoitzak termikoki isolatzeko duen gaitasuna zehazten da. Zenbat eta txikiagoa izan balio hori, orduan eta isolamendu hobea lortuko da, eta ondorioz, etxe barruko beroari eustez gain, energia gehiago aurreztu ahal izango dugu. Normalean, PVCak bere lehiakideek (aluminioa, zura...) baino U balio hobea du. Ondo gogoan hartu behar dira, halaber, materialen beste ezaugarri batzuk, hala nola, zaratak moteltzeko gaitasuna edo ura eta airearekiko hermetikotasuna.



**Beira:** Isolamendu termiko eta akustiko ona lortzeko, komenigarria izaten da beira egokia aukeratzea. Jakina, beira zenbat eta lodiagoa izan eta zenbat eta beira-kopuru handiagoa jarri leiho-orri bakoitzean, orduan eta isolamendu-balio hobek lortuko ditugu. Emisio baxuko beirak aukera egokia izan daitezke isolamendu termiko hobea lortzeko.

**Instalazioa:** Hauxe da leihoen alderdirik garrantzitsuenetako bat. Leihoa oso ona izan arren, instalazio

egokia egiten ez baldin bada, ez diogu aterako behar bezalako probetxurik. Ahal dela, konfiantzazko instalatzaile profesionalak aukeratu bet

**Segurtasuna:** Leihoak aukeraterakoan, ondo gogoan izan behar dugu beti pertsonen segurtasuna. Istripua gertatzekoan (kristala talka batez haustea, kasu), garrantzi handikoa da Eraikuntza-Kode Teknikoan zehaztuta dagoen araudi aplikagarria betetzea. Beiraren erresistentziak edo beira laminatua erabiltzeak ezbeharrak ekidin ditzakete. Segurtasunari dagoen beste alderdi bat da behar ez bezalako pertsonen irisgarritasuna. Honi aurre egiteko, leihoak ondo eta arretaz ixtea komeni da.



# IG A

## KRISTALDEGIAK

**TAILER ETA BULEGOAK: Legarre, 15 -EIBAR-**

Tfnoa. 943 70 25 41 eta 943 70 24 95  
Faxa. 943 70 24 95 Mugikorra. 670 21 46 25

**ERAKUSKETA ETA SALMENTA:**

**Birjiñape, 1 behea** Tfnoa. 943 20 20 40  
cristaleriaiga@gmail.com

**TAILERRA:**  
Errekatxu, 3

**CLIMALITekin isolatzaile onena lortuko duzu akristalamendu bikoitzaz**

## ACHA Kristaldegia

**ERAKUSKETA:**  
Arikixaneko Zubian

eta faxa: 943 20 39 03  
info@cristaleriaacha.com

## VENTANAS ONA<sup>®</sup> LEIHOAK


- AROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA.
- KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA.

Bidebarrieta, 28 - behea

Tel. eta Faxa: 943 20 28 28

Mugikorra: 653 113 309 / 669 531 358

ventanas.ona@gmail.com www.ventanasona.com



## METALEZKO ERAIKUNTZAK ALUMINIOZKO ETA PVC-KO AROZTEGIA

1984an sortua. Aluminio, PVC eta aluminio-egurrezko leihoen fabrikazioa. Lan mota guztiak honako esparruetan: burdin eta altzairu herdoilgaitza, ateak, barandak, makinendako babesak, tximiniak, nabarrak, etb.



**Txonta, 30 - 1. eta behea**

Tfnoak: 943 12 13 67

Faxa: 943 12 01 50

**ERAKUSKETA**  
**Urkizu, 26**

Tfnoak: 943 12 74 01

info@ulmar.net www.ulmar.net



## Osoro anaien hasiera ikusgarria neguko triatloi denboraldian

Domekan 2015eko neguko triatloiko Espainiako Kopako lehen proba egin zen Anson eta Osoro anaiak euren mai-letako lehen postuaren jabe egin ziren, denboraldia bikain hasita. Pellok bigarren postua lortu zuen sailkapen orokorrean, 23 urtetik behe-

rakoan artean lehenengoa izateaz gain, eta Txomin anaia gazteena 10. postuan sailkatu zen, junior mailako onena izatearekin batera. Triatloi horretan zazpi kilometro eta erdi egin zituzten korrika, 20 mendiko bizikletaz eta beste 10 eskiatzen.



## Eibarrek Madrilgo Atletico hartuko du bihar

Bihar arratsaldeko 18.00etan hasiko da Eibar FT eta Atletico de Madrid aurrez-aurre jarriko dituen neurketa. Madrildarrek Real Madril eta Bartzelonaren atzetik doaz sailkapenean, hirugarren postuan. Lehen itzuliko partiduan, bigarren zatian batez ere irudi bikaina eman eta koltxoneroen garaipena arriskuan jarri bazuten ere, eibartarrek 2-1 galdu zuten V. Calderonen; oraingoan txanpon berarekin erantzun nahiko diete Garitanoren mutilek.

Bestalde, Eibarko kluba aste honetan hasiko da abonoak kobratzen. Ipuruako Iparraldeko Tribunako lanei dagokienez, lur eskabazio faseari ekin diote egunotan.



Ipurua Klubeko jubenilen taldea: Maialen Oregi, Irene Perez, Arrate Baroja, Nerea Deza eta Lorea Armendariz.

## Bihar hasiko da gimnasia erritmikako amateur eta eskola mailako denboraldia

Ipurua kiroldegiak hartuko du bihar Gipuzkoako txapelketarako baliagarria izango den lehenengo fasea eta han izango dira parte hartzen Ipurua taldeko hamabost ordezkari, taldekako eta banakako lehiaketetan. Kadete B mailako taldeak bost sokekin egin beharreko ariketa aurkeztuko du eta jubenil A mailakoak bost pare maza erabiliko ditu; horrez gain, banakakoetan ere jardungo dute, Irati Yarza (senior plus) eta Ane

San Martin eta Nahia Bilbao seniorrekin.

Hurrengo asteburuan eskolarteko A eta B mailako fasea hasiko da Bergaran eta Azkoitian eta hor Ipurua Klubeko hogei neskatila izango dira parte hartzen. Lehiaketatik kanpo, gainera, benjamin mailako beste hamabost ordezkari erakutsiko dituzte euren ariketak. Gimnasia federatuek eta oinarri mailakoek martxoaren 21ean izango dute hurrengo hitzordu garrantzitsua.

## Eibar Eskubaloiko jubenil mailako neskak igoyeraren bila

Gipuzkoako azpitxapeladun geratu eta gero, asteburuan Euskal Ligara igotzen ahaleginduko dira Eibar Eskubaloia A taldeko neskak. Lehenengo aldia da klubeko nesken talde bat hain urruti heltzen dela. Territorial mailako Haritzak, bestalde, bigarren garaipena lortu zuen jarraian, oraingoan Zumarragan Urolaren aurka. Talde nagusiak 32-27 irabazi zion Egiari eta lidergoan jarraitzen du; eta Euskal Ligako kadete eta jubenil mailakoek, euren lehenengo fasea amaituta, bigarren eta hirugarren amaitu dute. Orain Euskadiko txapelaren bila joango dira.

## MAITANECASTILLOOTAOLA VIII. urteurrena

*Helduarora iristen ari bagara ere, kalean, lanean, edonon nabaritzen dugu zure hutsunea. Maite zaitugu.*

ZURE KOADRILA



## Deporrek eski irteera bi antolatuko ditu

Eibarko Klub Deportiboko eski batzordeak irteera bi antolatu ditu denboraldi honetarako. Lehenengoa otsailaren 21/22 asteburuan egingo dute eta bigarrena martxoaren 14/15eko asteburuan. Irteerak LHko 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzat alde batetik eta, bestetik, 18 urtetik gorakoentzat prestatu dira. Iraupen eskia egiteko Somportera joko dute eta alpinoa praktikatzeko Astunera. Helduek Villa Anayet hotelean hartuko dute ostatu eta adin txikikoek Triton aterpetxean. Prezioa, bestalde, 65 eurokoa izango da helduen kasuan (bidaia eta ostatua pentsio erdian barne) eta 75ekoa umeenean (hor, gainera, forfait-a, monitorea eta alokairua prezio barruan daude). Izen-emateak eguzten eta eguenetan egin daitezke, 19.30etatik 20.30etara, Klub Deportiboko bulegoetan. Informazio gehigarako, 943-201904 telefono zenbakira deitu daiteke edo eski@deporeibar.com helbidera jo.



## Katu Kalek indartsu hasi du urte berria

Bi partidu jokatu ditu Katu Kale saskibaloitaldeak 2015ean eta eibartarrek garaipen argia



lortu dute bietan. Azken partiduan Jon Arriagak zuzentzen dituen mutilak 80-59 nagusitu ziren Antigua Luberriko donostiarren aurrean, atsedenaldira 43-34 irabazten joan eta gero. Polanco anaien lan bikainak markatu zuen partidua, batez ere eurek ezarritako abiadura eta trantsizio azkarrei esker. Wilek 21 puntu lortu zituen eta Anderson anaiak 18, taldeko saskiratzaille onenak bihurtuta. Hildagok eta Urangak ez zuten jokatu. Eibartarrak sailkapeneko 4. postuan daude, Zarautz hirugarrenarekin berdinduta eta bigarren-nagandik garaipen bakarrera.

## motzean

### ERRUGBIA

Bosgarren postuan dagoen Eibar Ez Dok nesken errugbi taldeak Hernaniko Landare zelaian jokatu du domeka eguerdian. Bestalde, 16 urtetik beherako mutilen taldeak Gernikan izango du partidua bihar 11.00etan. Eta lehen taldeak Zarautz liderra hartuko du Unben bihar 16.00etan, mailari eusteko norgehiagoka zailean. Zaletuendako hitzordua!

### ZIKLO-KROSA

Specialized-Ermua taldeko Aitor Hernandezek 8. postu bikaina lortu zuen Herberehetako Rucphen herriko proban. Ermuko txirrindularia hamar lehenen artean izan zen proba guztian.

### ARETO-FOBALLA

Concepto Egilek 4-6 irabazi zion Aurrera Vitoriari 2. B mailako bigarren multzoko partiduan eta domekan, eguerdiko 12.30etan, Colo-Colo liderra hartuko du Olaizaga kiroldegian euren arteko bost puntuko alde txikitze asmoz. Infantil mailako Sukiak, bestalde, 12-4 irabazi zion Uzturpe-Laibururi Gipuzkoako txapelketan.

49.140 SAGARDO BOTILA 21 URTEGAN, 867 BAZKIDE

...eta kitto!  
ko  
bazkide izan nahi dut

...eta kitto! Euskara Elkarte  
Urkizu 11, solairuartera. EIBAR. Tel.: 943 20 09 18  
elkartera@etakitto.com

urteko kuota

- 16 urtetik behera  
**5 euro**
- Lanean dihardut  
**45 euro**
- Langabea, ikaslea,  
jubilatua, etxekoandrea  
**15 euro**
- Borondatez, diru  
gehiago eman nahi dut  
..... **euro**

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_ Herria: \_\_\_\_\_  
 Telefonoa: \_\_\_\_\_ e-maila: \_\_\_\_\_  
 Lanbidea: \_\_\_\_\_ Jaiotze data: \_\_\_\_\_  
 Kontu zenbakia (20 digito): \_\_\_\_\_



**IÑIGO ARANBARRI** (idazlea)

## “Ez dut uste hemen greziarren ausardia erakutsiko genukeenik”

Datorren martitzenean, Harixa Emoten literatur tertuliaren barruan, Iñigo Aranbarri azkoitiarraren “Apirila” liburuak landuko dute. Hori aprobetxatuz, otsailaren 3an Portalean izango den egilearekin izan gara bere liburuaz berba egiteko. Hiztegiaren aldetik aberatsa, “Apirila” laugarren nobela du poesia eta entsegu ere lantzen dituen idazleak.

**- Zergatik ‘Apirila’ nobela hau? Esan duzu ere gure historiako zatiak ez zaizkigula transmititu...**

Apirila izenak, alde batetik, badu iraultza boltxebikearen Urriaren kontrapuntutik. Han garaipena izan zena hemen zaputza da. Bestalde, sinbologia aldetik ere esanahi berezia izan du gure nekazarien imajinarioan. “Apirila, behar ez zuen hila” esan ohi zuten gure zaharrek. Aurreko udazkenean gordetakoak janda, udaberrikoak oraindik hasi gabe, behar gorriaren esanahia izan du Apirilak. 1766ko apirilako matxinadako gertaerak toki berezia hartzen dute nobelari. Azkoitian hasi eta Deba arrora ere zabaldu zen, eta gariaren eta artoaren prezioa izan zen arrazoietako bat. Eta ez, ez zaigu horren berri eman, bai ordea matxinoen jopuntuan izan ziren XVIII. mendeko jauntxo haien obrena: Euskalerriko Adiskideen Elkarte delá, Bergarako Errege Mintegia delá, wolframioa, El borracho burlado... Inori ezer kentzeke, behar dugu bertsio osatu bat.

**- Gaur egungo krisia eta garai batekoa parekatu nahi izan dituzu. Bi denbora planoen arteko kontara da zurea?**

Bi plano dira, bai, oraingo krisiak txikitutako jendeak eta matxinadakoak osatzen dutena. Ez da, baina, jarraipen logikorik. Eldarnioa da bidea, iraganaren eta orainaren arteko lotura jostari etengabea izan nahi du liburuak.

**- Bere buruari sua eman zion greziarra ni izan naitekeela gerturatu nahi izan duzu. Zelan ikusi dituzu domekako hauteskundearen emaitzak?**

Bere buruari su eman ziona edo Sintagma plazan bertan bere buruari tiro egin zion botikari jubilatua hura, Dimitris Christoulas. Milaka kasu antzeko trika greziarren eguneroko martxa estutzen hasi zenetik. Nobelari bada halako enpatia bat hemengo Esteban Alberdiren eta horiek guztiak biltzen dituen Nikos Kokkinias horren artean. Distantziak distantzia, krisiak xehetuak beste xehetu batengan ikusten du bere burua. Ez naiz analisi serio bat egiteko gauza. Gauza batek eman dit arreta. Merkelek, Junkerrek, Lagardek... asteak zeramatzaten amenazuka, esanez diru iturria moztuko zietela Syrizarri botoa emanez gero. Eta, hala ere, gai izan dira txantajeari kakazotz egiteko. Ikaragarria iruditzen zait hori. Ez dut uste hemen ausardia bera erakutsiko genukeenik.

**- Zelako kritikak jaso ditu ‘Apirila’ liburuak? Zer bota duzu faltan, zer izan zaizu aberasgarri?**

Egunkarietako ohiko kritikek gain, oso aberatsa gertatzen da irakurle txokotako jendearekin aurrez aurrekoa. Hor agertzen dira gordinen koxkak, toledurak eta neke-pozak. Bi planotan planteatuta egotekeran, bada ez duena batasunak hainbeste lotu, eta matxinadan katigatuta segitzea nahi zukeena, edo oraingo krisi egoera luzeago eman behar nuela eskatu didanik... irakurle adina inpresio. Ederra da hori.

## Korrika batzordea Eibarren

**EUSKAHALDUN!** goiburuari jarraituta, martxoaren 19an Urepeletik irten eta handik hamar egunera, 29an Bilbon amaituko da Korrika 19. Eibarrera martxoaren 23an ailegatuko da, Ermua zeharkatu eta jarraian, arratsaldeko bostak aldera. Aurreko edizioetan egindakoaren bidetik, oraingoan ere Korrika batzordea eratuko da Eibarren, egun horren pres-taketa eta sortuko diren lanei aurre egiteko. AEK-tik aditzera eman dutenez, “batzorde horretan parte hartzeko gogoia eta euskerari laguntzeko borondatea, besterik ez dugu behar”. Lehen bilera otsailaren 9an, 18.30etan AEK euskaltegian egingo da eta interesa duenak zuzenean bertara jo dezake.



## Lehen Gilda-lehiaketa martxoan

**Euskeraz Primeran!** kanpainaren barruan antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak lehenengo gilda-lehiaketa, kanpaina horretan parte hartzen diharduten herriko tabernen artean. Martxoaren 5ean eta 6an, egun eta barixakuan izango da lehiaketa, eta sari bi egongo dira: epaimahaiarena (150€) eta herritarrena (150€). Herritarren bozkak jasotzeko bozketarako kuxkak eta orriak egongo dira taberna bakoitzean. Otsailaren 11ra arteko epea dago izena emateko. Otsailaren amaieran argitaratuko du ...eta Kitto!-k lehiaketara aurkeztuko diren gilden katalogoa.





## Txikitto! kolorez jantzita

Albiste zoragarri batekin hasi du urtea ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Udalaren laguntzarekin Eibarko LHko ikasleentzat egiten duen Txikitto! hilabetekaria kolorez jantzita agertuko da hemendik aurrera. Zuri-beltzetik koloretara pasatzerakoan aldizkariak ikusgarritasunean irabazi du, zalan-tzarik gabe. Aste honetan banatu zaie aldizkari berritua LHko ikasle guztiei eta, argazkian ikus daitekeen bezala, ustekabean eta poz handiz hartu dute Txikitto! berria.

Gezurra badirudi ere, aurten 20 urte beteiko ditu Txikitto! aldizkariak. Jende askok ezagutzen du aldizkaria, urte guzti hauetan Eibarko 6-12 urte bitarteko haur guztiek 16 orrialdetako aldizkaria euren ikastetxeetan jaso eta etxera eramateko aukera izan dute-eta. Itxuraz aldatuz joan da urtetik urtera: bi koloretan, zuribeltzean, tamaina desberdinetan, diseinu aldaketak... 20 urte eta gero,




2015ean, aldizkari guztia koloretan ateratzeko ahalegin berezia egin du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Gainera, ale kopurua ere handitu egin da: guztira 1.630 ale irtengo dira hemendik aurrera, lehen baino 300 ale gehiago. Lehen familia bakoitzeko ale bat banatzen zen, baina orain ume bakoitzak bere aldizkaria izango du.

Txikitto!-k atal ugari ditu: txisteak, denborapasak, lehiaketak, erreportajeak, elkarrizketak, ikastetxeetako berriak, eskulanak, sukaldaritza, agenda, liburuak, bitxikeriak, ipuinak... Guztia osatzeko ezinbestekoa izaten da herriko ikastetxe guztien laguntza eta partehartzea. Mila esker denoi!

## "Basoak, ikuspegiak uztartuz" mahaingurua

UEUk eta EHUK antolatutako "Agroekologia: trantsiziorako gure bideak lan-tzen" graduondokoaren harira, basoak eta basogintzaren inguruko hausnarketa egitera bideratutako mahaingurua antolatu dute biharko Markeskuan, 10.00etatik 13.00era. Interesa duen edozeinentzat irekia izango den ekitaldia Joseba Arbaiza geografoak moderatuko du eta, mahainguruan parte hartzen, Iñaki Vigiola (EHNE-Bizkaia), Roke Akizu (Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi eta Natura Inguruneko zuzendaria), Iñaki Antigüedad (Hidrogeologia, EHU, UEU), Ramon Aju-ria (Aramaioko alkatea) eta Iñaki Aizpurua (Ihobe, UEU) egongo dira. Mahainguruan, besteak besteak, basoetan azken hamarkadetan aurrera eramandako kudeaketa, onartutako politikek eta plangintzek izan dituzten ondorioak eta gaur egun planteatzen diren politika eta kudeaketa alternatiboak zeintzuk diren azalduko dituzte.



## Zapatuko ipuina

Bihar 18.00etan Eñaut Gorbea antzezle, klown, txontxongilolari eta ipuin kontalariak "Aldrebeskeriak eta beste zenbait kontu" izenburuko saioa eskainiko du umeen liburutegian, Zapatuko Ipuina ekimenaren barruan: "Zer dira ipuin aldrebesak? Bukaeratik hasi eta hasieraz amaitzen direnak? Aldrebes irakurtzen direnak? Ipuin saio honetan, nortasun baloreak landu eta une batez irudimenaren munduan eta ipuin aldrebesen artean murgiltzera gonbidatzen zaituztegu".

## laburrak

### EÑAUT ELORRIETA COLISEOAN

Otsailaren 7an aurkeztuko du Eñaut Elorrietak "Deserriko kantak" bakarkako bere lehen lana Coliseoan, 22.00etan hasiko den kontzertuan. Sarrerak 10 euro balio du eta antzokiko leihatilan zein kutxa-bank.es webgunean aldeztatik aurretik erosteko aukera dago.



### EUSKAL JAIRAKO ENTSEGUAK

Eibarko Euskal Jaiak 50. urteurrena ospatuko du maiatzean eta, hori ospatzeko, antolatzaileek inoiz dantzan aritutakoei maiatzaren 31n berriro plazara irten eta dantzan egiteko gonbidapena egin nahi diete, dantzari guztiak elkarrekin Imotz-eko eskualde eta Iribas-eko ingurutxoan dantzan egitera animatzeko. Mogel-Isasi ikastetxean egingo diren entseguetan parte hartzeko euskaljaia50@gmail.com helbidera idatzi edo 605711429 zenbakira whatsapp-a bidali daiteke.

## Aratosteak gero eta gertuago

Astlehenean aukeratu zituzten Aratosteak Eibarren kartel lehiaketako lan irabazleak: helduen mailan, Maialen Belaustegi Lapeiraren "Animalia tropikalak" izenburukoa saritu dute eta hori izango da, beraz, aurtengo jaiak iragartzeko erabiliko dutena. Horrez gain, 11-14 urtekoen mailan Salma Losadak irabazi du, "Edurne urdin hori artean" kartelarekin; eta 10 urtera artekoen artean saria Maialen Saez Abarrategik eskuratu du, "Elefante kololetsua" lanarekin.

Eguren Zuri otsailaren 12a izango da, baina Aratoste giroa horren aurretik ailegatuko zaigu Kezka dantza taldearen eskutik: otsailaren 7an irtengo dira kokomarruak kalejiran, goizez Otaola- Kiñarra aldeko baserrietan eta arratsaldean, berriz, herriko erdialdeko kaleetan. Iluntzeko 19.00etan anbulategiko parkean elkartuko dira koko-konpartsa eta koko-festan parte hartu nahi duten guztiak, Mauxitxa txaranga-garen doinura erdiko kaleetan ibiltzeko: "Ekitaldi irekia da hau eta nahi duten guztiak daude gonbidatuta koko-jantzi eta festan gurekin batera parte hartzera. Eguren horretan dantzarako prest izateko dato-

ren asteko martitzenean, otsailaren 3an, koko-dantzak ikasteko entsegu antolatatu du, 20.00etan Portalean".

### Lehiaketak

Bestalde, urtero lez Aratosten inguruko hainbat lehiaketa antolatu dira gurean. Udalak "Aratosteetan dotoreen jarritako taberna" lehiaketarako dei egin du eta lokala apaintzen duen Eibarko edozein tabernak har dezake parte. Izena emateko epea otsailaren 12ra arte egongo da zabalik (Pegoran edo 010 telefonoan) eta irabazleari udalaren garaikurra emango diote.

...eta kitto! Euskara Elkarteak, berriz, play-back lehiaketa antolatu du Aratoste Domekarako (otsailaren 15erako). LH-ko 5. eta 6. mailako ikasleentzat prestatu den lehiaketa 17.00etatik aurrera izango da, Untzagan. Parte hartu nahi duenak bere ikastetxean eman dezake izena (azken eguna, otsailaren 9a).

Eta Arrate Kultur Elkarteak XVIII. Eguren Zuri argazki lehiaketarako deialdia egin du Aratosten inguruko argazkiekin parte hartu nahi duten zaletu guztientzat. Par-

aratosteak



tehartzaile bakoitzak gehienez lau argazki (koloretan zein zuribeltzean) aurkezteko aukera izango du, marxoaren 17ra arte (Arrate Kultur Elkartearen bulegoan edo tabernan jasoko dituzte). Argazki onenarentzat 160 euroko saria emango dute, bigarrenarentzat 100 eurokoa eta hirugarrenarentzat 60 eurokoa. Informazio gehiagorako bulegora joan, 943202299 telefonora deitu (mezua laga) edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi daiteke.



## Elikadura osasuntsuaz berbetan

Gustora irten ziren martitzenean Jaione Yeregik ...eta kitto!-n eman zuen hitzaldira joan zirenak. Berbetan barruan antolatutako saioan dietetika eta nutrizio kontuetan aditua den hizlariak Gabon osteko gehiegi-keriak arintzeko hainbat aholku eman zituen.

## Ezti-dastaketa otsailean

Otsailaren 24rako ezti-dastaketa saioa antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. "Erle mundua"-ko Aitor Zabalak eskainiko du saioa, arratsaldeko 19.00etatik aurrera ...eta kitto!-n bertan. Izen-ematea otsailaren 4tik 18ra arte egin ahal izango da (943200918). 5 euro balio du, ...eta kitto!-ko bazkide eta berbalaguntzat 4,50 euro.



## Logo erakusketa Topalekuan

Arrate Kultur Elkarterako logotipo lehiaketara aurkeztu diren lan guztiekin erakusketa zabalduko dute gaur Topalekuan. Otsailaren 15era arte eguneroko zabalduko dute, 19.00etatik 21.00etara. Arrate Kultur Elkarteko logotipo berria elkarteko bazkideek aukeratu dute, erakusketan ikusgai daudenen artean gehien gustatzen zaienari botua emanda eta irabazlea, berriz, otsaila amaieran egingo duten urteko batzarrean berretsiko dela iragarri dute.



## Red Blaze + Orihen

Zapatu gauean, 22.30etatik aurrera Ez Dok tabernan kontzertua emango dute Red Blaze eta Orihen taldeek. Azken honek, gainera, "Incontrolable" kaleratu berri duen EP-ko kantuak zuzenean aurkeztuko ditu.

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, NAIA NILI, gaur bederatzirte betetzen dozuz-eta! Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ALBA, gaur sei betetzen dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Manex-en partez.



Zorionak, MARIAN, aurreko barixakuan urtiak bete zenduaz-eta. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, lhintzaren partez.



Zorionak, JULEN, astelehenian zortzi urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat, txapeldun, famelixaren partez.



Zorionak, AIMAR Blanco Gantxegi, gure pototo, bixar urtebete egingo dozu-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, KATRIN, domekan sei urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, HAIZEA (hillaren 27xan bost urte eginda) eta PAULE (hillaren 12xan lau)). Patxo bat aittitta Eduardo, amama Itziar, Garoa, Enara, Danel eta Xabat-en partez.



Zorionak, IKER (bixar sei urte beteko dozuz) eta IRAIA (hillaren 12xan hiru egin zenduaz-eta). Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, LANDER, txapeldun!!! Muxu haundi bat danon eta, batez be, IGORREN partez!!!



Zorionak, IZAR, bixar 11 urte beteko dozuzelako. 11 muxu famelixa guztiaren partez.



Zorionak, URKO, gaur lau urte beteko dozuz-eta. Muxu bat, mutil haundi, etxekuen partez.



Zorionak, GAIZKA, atzo 11 urte egin zenduazelako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JUNE. Muxu haundi bat etxekuen partez zure laugarren urtebetetzian.

## hildakoak

- Maria Serrano Periañez. 90 urte. 2015-I-8.
- Margarita Uriarte Galdos. 84 urte. 2015-I-22.
- Eduardo Piñol Merino. 23 urte. 2015-I-23.
- Alberto Soto Ezkurdia. 23 urte. 2015-I-23.
- Pedro M<sup>a</sup> Eiguren Agirregomezkorta. 71 urte. 2015-I-26.
- Isabel Fernandez Garcia. 87 urte. 2015-I-27.

## jaiotakoak

- Ekhi Puerto Quintana. 2015-I-14.
- Nora Bujedo Garcia. 2015-I-15.
- Malen Revuelta Gonzalo. 2015-I-15.
- Martina Aldazabal Gumbao. 2015-I-20.

(ANTZOKIAN)  
31n: 17.00  
1ean: 17.00

"Paddington"



Zuzendaria: Paul King

## zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)  
31n: 19.45, 22.30  
1ean: 20.00  
2an: 20.30

"Babadook"

Zuzendaria: Jennifer Kent



(1 ARETOAN)  
31n: 17.00  
1ean: 17.00

"Into the woods"

Zuzendaria: Rob Marshall



(2 ARETOAN)  
31n: 17.00, 19.45, 22.30  
1ean: 17.00, 20.00  
2an: 20.30

"Magia a la luz de la luna"

Zuzendaria: Woody Allen



(ANTZOKIAN)  
31n: 19.45, 22.30  
1ean: 20.00  
2an: 20.30

"Corazones de acero"

Zuzendaria: David Ayer



## BARIXAKUA 30

### GAZTELEKUA

**17.00/19.00.** Sexualitate aholkularitza aditu baten eskutik. Indianokuan.

### SANTA ESKEA

**17.30.** Santa Agedarako entsegua. ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuarteran).

### TOPAKETA

**18.00.** "Pakea da bidea" II. Topaketa. Aldatze ikastetxean (txokoan).

### AUZOBIRA

**18.30/20.30.** EH Bilduko ordezkariak herritarren proposamenak jasotzeko. Ipuruako bi dorreen artean

## ZAPATUA 31

### MAHAINGURUA

**10.00/13.00.** "Basoak, ikuspegiak uztartuz" UEU-ren ikastetxe nagusian, Markeskua jauregian.

### ALDATZE DANOK GARA

**11.00.** "Aldatze Danok Gara IV. Jardunaldia. Aldatze ikastetxean.

### AUZOBIRA

**11.30/13.30.** EH Bilduko ordezkariak herritarren proposamenak jasotzeko Urkin (Cepa parean).

### INAUGURAZIOA

**12.00.** Eibarko Gerra Zibilaren interpretazio zentruaren inaugurazioa. Aurkezpena Jesus Gutierrez eta Jose Luis Valenciagaren eskutik. Arrateko kolonian.

### BATZARRA

**16.15.** Eibarko Irratizaleen Elkartearen urtekoa. Peña Txinberan (Zezenbide, 7).

### ATE IREKIAK

**16.30/19.30.** XXVIII. Eskola Zabalik Eguna. San Andres ikastetxean.

### GAZTELEKUA

**17.00.** Play / Wii. Indianokuan.

### UMEENDAKO ZINEA

**17.30.** "Avatar" (7 urtetik gorakoentzat). El Corte Inglésan.

### ZAPATUKO IPUINA

**18.00.** "Aldrebeskeriak eta beste zenbait kontu", Eñaut Gorbearen eskutik. Umeen liburutegian.

## DOMEKA 1

### SAN BLAS IKASTAROA

**10.00.** San Blas opilak egiteko, Arrate Kultur Elkartearen eskutik. Portalean (sukaldean).

### GAZTELEKUA

**18.00.** Gaztetxef finala. Indianokuan.

## ASTELEHENA 2

### IKASTEN

**16.00.** Sendabelarren foroa: Landare pozoidunak. Portalean.

## MARTITZENA 3

### IKASTEN

**10.00.** "Hizkuntza zine-matografikoa" hitzaldia, Pedro Saldañaren eskutik.

### JOSKINTZA TAILERRA

**17.00 eta 18.30.** Portalean.

### LEHIAKETA

**17.00/19.00.** Etxean egindako San Blas opilen lehiaketa, Arrate Kultur Elkartearen eskutik. Topalekuan.

### HARIXA EMOTEN

**19.00.** Literatur tertulia: "Apirila", Iñigo Aranbarri idazlearekin. Portalean.

### ENTSEGUA

**20.00.** Koko-dantzak ikasteko entsegu irekia. Portalean (3. pisuan).

### ENTSEGUA

**20.30.** Sostoaren Santa Agedarako entsegu irekia, kide-ohientzat. Musika Eskolan (Portalean).

## EGUAZTENA 4

### IKASTEN

**10.30.** Antzerkia. Portalean.

### IKASTEN

**11.00.** Kafe-tertulia: "Laguntza publikoak". Untzagako jubilatutuek.

### MATXARIATUZ

**18.30.** Parte-hartze prozesuaren inguruko tailerra. Portalean (Armagintza).

### SANTAESKEA

**18.30.** Eibarko Sarearen Santa Ageda kalejira. Amaña, Ipuru eta erdialdean.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19.00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

### SANTAESKEA

**19.00.** Gurasoak Berbetan egitasmoen Santa Ageda kalejira. Ibarkurutzetik Urkizuraino. Piskolabisa ...eta kitto!-n.

### SANTAESKEA

**19.00.** Sostoaren Santa Ageda kalejira. Ego-Gain kaletik Urkizura.

### SANTAESKEA

**19.30.** Kaleetan Kantuz abesbatzaren Santa Ageda kalejira. Urkizutik hasita.

## EGUENA 5

### IKASENPRESA

**10.00/14.00.** Ikasenpresa azoka. Untzagana.

### IKASTEN

**10.00.** "Laborantza organiko, ekologiko eta transgenikoa" hitzaldia (2. atala), Juan Canalesen eskutik. Armeria Eskolan.

### GURASOAK MARTXAN

**18.30.** "Comunicar con eficacia para relacionarnos mejor" hitzaldia LH-ko ikasleen gurasoentzat. Aldatze ikastetxean.

### KALERATZEAK STOP

**11.00.** Kaleratzeak Stop Debabarrenaren batzar irekia. Portalean (3. solairuan).

### KALEETAN KANTUZ

**19.30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### ENTSEGUA

**20.00.** Euskal Jaiaren 50. urteurrenerako dantza entsegua. Portalean.

## HOROSKOPOA

### ARIES

Ez zabilta berandu: Aratosteetarako koko-jantzia egin dezakezu oraindik. Ea etortzen zaizun zoezer burura!

### TAURUS

Urtea amaitzearekin egin zenituen promesa guztiak apurtu dituzu. Ahoa itxi eta jendeak ez dizu konturik eskatuko.

### GEMINI

Gripea gure artean dago eta hobe duzu zaintzea. Mimoak ere eskatu dezakezu, jendea prest daukazu-eta horretarako.

### CANCER

Inguruan asko maite zaituen jendea duzu; aprobetxatu egoera. Altxa burua eta egin irribarre! Mundua zurekin da!

### LEO

Besteei buruz berba egitea gustatzen zaizu, baina ederki gordetzen dituzu zureak, ezta? Kuxkuxero hutsa zara!

### VIRGO

Larregi arduratzen zara itxuragatik. Ez dakizu oraindik edertasuna ez dagoela fisikoan, baizik eta bakoitzaren barnean?

### LIBRA

Zenuen diru guztia beherapenetan xahutu duzu! Kartel koloretsu bat ikusi orduko ipurdia galitzen duzu. Sekulakoa!

### SCORPIUS

"Urte berria, bizi berria" zurekin ez da bete. Betikoa egiten duzu, eta pozik gainera. Hori da, hori, zoriotsua izatea.

### SAGITTARIUS

Jende berri asko ezagutuko duzu. Zuk duzun xarmarekin, normala da. Hala ere, adi ile luzeko neska horrekin.

### CAPRICORNIUS


Urtarrila luzeegia egiten ari zaizu? Lasai, konturatu orduko otsailean egongo gara. Aratosteak ere, hor gaanean, ditugula!

### AQUARIUS

Martitzenean diruarekin lotutako albistea jasoko duzu eta zure animoa zeharo aldatuko da. Aposturik ez egin!

### PISCIS

Zergatik zara hain zakarra zu baino gazteagoekin? Edozein egunetan bueltan etorriko zaizu; orduan damutuko zara.



## erakusketak

- ✓ **Urtarrilaren 31ra arte**  
**JOAN MIMOREN** argazki erakusketa.  
*El Ambigu tabernan*  
**JON AGIRREREN** argazki erakusketa.  
*Portalea tabernan.*  
**JUAN ZAMORAREN** argazki erakusketa.  
*Klub Deportiboan.*
- ✓ **Otsailaren 8ra arte**  
**"EIBAR K.E. / 75. URTEURRENA"** erakusketa.  
*Portalean.*  
**MARTIN UNANUE AÑIBARROREN** "Uraren esker onari mandalak" erakusketa.  
*Untzagako Jubilatut Etxean.*
- ✓ **Otsailaren 15era arte**  
**ARRATE KULTUR ELKARTEAREN LOGOTIPO** lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa. *Topalekuan.*
- ✓ **Martxoaren 1era arte**  
**JOSEBA ARGINZONIZ-EN** erakusketa.  
*El Corte Inglesean.*
- ✓ **Martxoaren 29ra arte**  
**"EIBAR INDUSTRIALA 2014"** erakusketa.  
*Armaztagaren Museoa (Portalean).*

## lehiaketak

- ✓ **Umeendako koko-jantzi lehiaketa**  
**Otsailaren 13an** (Aratoste Zapatuan), 17.30etan, El Corte Inglesean. Izen-ematea: Merkataritza zentruko liburu sailean.
- ✓ **Aratosteetako play-back lehiaketa**  
 LH-ko 5. eta 6. mailako ikasleentzat. **Otsailaren 15ean** (Aratoste Domeka), 17.00etan, Untzagan. Izen-ematea: Ikastetxeetan. **Azken eguna: otsailaren 9a** (astelehena).
- ✓ **Eibarko Gatzizenen Lehiaketa**  
**Otsailaren 15era arte**, Udal Euskaltegian, AEK-n edo liburutegian; posta elektronikoz euskaltegia @eibar.net / eibar@aek.org Informazio gehiago: www.eibarko-euskara.com
- ✓ **Gilda-lehiaketa**  
 Euskeraz Primeran! kanpainen sartuta dauden tabernentzat. **Martxoaren 5ean eta 6an**. Izen-ematea: **Otsailaren 11ra arte**, ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuarterean) edo 943200918.
- ✓ **XVIII. Eguen Zuri argazki lehiaketa**  
**Martxoak 17ra arte** (19.00ak arte), Arrate Kultur Elkartearen. Informazioa:943202299 edo arratekultu@gmail.com

## farmaziak

- ✓ **barixakua 30**  
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **zapatua 31**  
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **domeka 1**  
 EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **astelehena 2**  
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **martitzena 3**  
 EGUNEZ **Castañó** (J. Etxeberria, 7)
- ✓ **eguztana 4**  
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **eguna 5**  
 EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **barixakua 6**  
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

**GAUEZ BETI -2015EAN-Elorza (J. Gisasola, 18)**

## SUDOKUA

9			5				
7	3	1	4	9			
		5		3	4		
6	1	7				9	
		4				7	
		9				1	8
		8	2			3	
			3	9	8	2	7
			4				1

5	8	3	2	9	1	6	7	4
7	1	9	5	6	4	8	3	2
4	6	2	3	7	8	9	5	1
9	7	1	6	4	5	2	8	3
6	3	5	9	8	2	1	4	7
8	2	4	7	1	3	5	6	9
2	4	6	1	5	7	3	9	8
3	5	7	8	2	9	4	1	6
1	9	8	4	3	6	7	2	5

AURREKOEN EMAITZA

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia .....943 03 25 00
- Torrekuua .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak .....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukalde berria eta 2 komun. 5 horma-armairu eta trasteroa. Igoailua. Guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. Argitsu. 130 m erabilgarri edo 156 m eraikiak. Tel. 626-203838 edo 699-495249.

### 1.2. Errentan

– Bikoteak, ume birekin, 3 gelako pisua hartuko luke Eibarren. Tel. 685-380585.  
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Merke. Tel. 632-192408.  
– 3 logeletako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-532589.  
– 1/2 logeleko pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-282203.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Furgoneta Fiat Ulysse salgai. 8 jarleku. 2001 urtekoa. Oso ondo zainduta. 2.500 euro, negoziagarriak. Tel. 678-906709.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Taberna traspasoa Eibarko erdialdean. Tel. 696-269154.

### 3.2. Errentan

– Bulegoa alokagai. Klase partikularrik emateko egokia. 30 m<sup>2</sup>. Merke. Tel. 607-658356.  
– Marradun garaje plaza alokagai. Ardantza-ko geltoki ondoan, Handia. 75 euro. Tel. 647-952677.  
– Gazteentzat prestatutako lokala alokatzen dut. 18 urteik gorakoentzat. 70 m<sup>2</sup>. Tel. 679-425467.  
– Garaje itxia alokagai Txomon. Tel. 657-771496.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-282203.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 603-683176.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-296596.  
– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 671-258740.  
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko edo ileapaindegian lan egiteko. Disponibilitate osoa. Tel. 646-441190.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 628-765921.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:  
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.  
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da soziedadek edo bulegoak garbitzeko. Tel. 638-421827.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako lanak egiteko eta ileapaintzaile jarduteko. Tel. 688-394038.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko, ostalaritzan jarduteko... Tel. 943-175048.  
– Neska eibartarra eskaintzen da goizez administrazio lanak egiteko (esperientzia luzea) eta umeak eskolara eramane eta zaintzeko. 658-845081.  
– Neska eskaintzen da arratsaldetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 636-841158.  
– Neska eskaintzen da edozein lan egiteko: nagusiak zaintzeko, ... Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 626-068463. Herminia.  
– Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Esperientzia nagusiak zaintzen. Ordu-tegi zabalak. Tel. 657-481028. Felipe.  
– Geriatria tituludun emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 652-532589.  
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 655-231059.  
– Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko. Tel. 727-731386.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Esperientzia. Tel. 682-277198.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Esperientzia. Tel. 697-754174.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-846244. Neira.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo mugikortasun arazoak dituztenak zaintzeko. Baita ospitaletan ere. Esperientzia garabi zerbitzuan. Tel. 600-005160.  
– Neska eskaintzen da etxeak edo bulegoak garbitzeko (esperientzia) eta umeak zaintzeko. Tel. 943-901793 edo 603-644854.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 631-534125.  
– Erizaintza ikaslea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta taberna zerbitzari edo sukaldari jarduteko. Tel. 602-022174.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 645-366850.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 608-523426.  
– Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 648-180233.  
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da gauzez garbiketarako lanak egiteko. Tel. 631-098995.  
– Emakumea eskaintzen da arratsaldetz edo gauzez nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 608-886701.  
– Neska eskaintzen da 13.00etatik aurrera nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 620-757528.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi zabalak. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-746668.  
– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 608-376387.  
– Emakumea eskaintzen da hotel kamarera jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 677-259560.  
– Emakume eibartarra eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 649-258913.  
– Neska eskaintzen da nagusiak (baita gauzez ere) edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta tabernak edo soziedadek garbitzeko. Tel. 674-713262.  
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako: nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile moduan... Esperientzia. Tel. 674-342769.  
– Neska eibartarra eskaintzen da goizez etxeko lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 616-607121.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 606-354982.  
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Autoarekin. Tel. 657-794652. Nerea.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-008974.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-408528.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 690-223601.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 633-199533.  
– Emakumea eskaintzen da soziedadek garbitzeko. Tel. 638-421827.

### 4.2. Langile bila

– Neska euskalduna behar da 9 urteko umeak zaintzeko eta etxeko lanetan laguntzeko astelehenetik barriakura, 16.30etatik 20.00etara. Tel. 650-981443.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– Irakasle partikularra behar da DBH 2. mailako ikaslearen etxean klaseak emateko. Tel. 666-449559.  
– Euskerazko irakaslea behar da LH 6. mailako ikaslearen etxean klaseak emateko. Tel. 669-293462.

### 5.2. Eskaintzak

– Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasleen arteko trukeak eta azterketa prestaketa (EO). Tel. 670-793312.  
– Lizentziatu euskalduna eskaintzen da klase partikularrik emateko eta umeak zaintzeko. Tel. 639-976232. Ane.  
– “Gantxiloa”, “gantxilo tunisiarra” eta “wow gantxiloa” ikastaroak ematen ditut Itzamna akademian (Bittor Sarasketa). Zapatuetan, hamabostean behin (17.00etatik 19.00etara). Tel. 649-100185.  
– Ingeleseko klase partikularrik ematen dira, 4 urteik aurrera. Talde mugatuak. Esperientzia EEBB-etan eta Euskal Herrian. Tel. 651-706303.  
– DBH eta Batxilergoko Matematikak etabarrereko klaseak ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.  
– Fisika eta Matematikako klase partikularrik eta umeentzako irakaskuntza teknikak ematen ditut. Gehienez 4 lagunekoko taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.  
– Euskarazko klaseak ematen ditut. Azterketarako prestaketa: EGA, HABEren perfilak, Osakidetza profilak... Tel. 620-608065.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– 70. hamarkadako Fender Twin-Revers balbuletako amplifikadorea salgai. Beste musika tresna batzuen salerosketa edo alokairua eta musikoentzako grabaketak. Tel. 665-732640.  
– Emaztegai soinekoa salgai. 40 tailakoa, Vintage modeloa. Tel. 619-163031.  
– Jose Kareaga pintorearen “Hayas de Arrate” koadroa saltzen dut. Tel. 619-163031.  
– J.M. de Barandiaran-en “Obras Completas”-eko tomoak (1etik 15era) salgai. Ilustrazioekin. 180 euro. Tel. 943-752480 edo 616-533796.  
– Ontzi-garbigailua, Balay markakoa, salgai. Egoera onean. Merke. Tel. 636-906921.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Quechua motxila galduta Argatxako jardinetan utzirik 9an. Sarituko da. Tel. 676-729551.



Otsailaren 5ean  
10:30-13:30  
Untzaga Plazan

## IV. IKASENPRESA Azoka

Lanbide Heziketako ikasleek  
sortutako era guztietako  
produktuak eta zerbitzuak!

Zer da IKASENPRESA?

TKNIKAK koordinatuta, Lanbide Heziketako ikasleei  
zuzenduriko enpresen simulazioan oinarritutako  
Hezkuntza Programa, kultura ekintzailea sustatuz.

#ikasenpresa15  
[www.ekingune.tknika.net](http://www.ekingune.tknika.net)



¡Participa con nosotros!  
Gurekin parte har ezazu!



**La**  **Salle**  
Eibar

**AURREMATRIKULA  
ZABALIK**  
2015-2016 IKASTURTEA

Tfnoak. 943 202 133  
943 121 698  
[www.lasalleeibar.com](http://www.lasalleeibar.com)

Otsailaren  
2tik 13ra  
(biak barne)

HAUR HEZKUNTZA  
LEHEN HEZKUNTZA  
eta DERRIGORREZKO BI-  
GARREN HEZKUNTZA

La Salle Isasi  
eta Azitain Ikastetxee-  
tan



# Aurre matrikulak

Otsailaren  
2tik 12ra

HAUR ETA LH-KO  
IKASTETXEETAN

Otsailaren  
2tik 13ra

DBH-KO  
IKASTETXEETAN



MOGEL ISASI D.B.H. 943 20 30 94



ITZIO D.B.H. 943 70 22 89



AMAÑA 943 20 72 50



ARRATEKO ANDRA MARI 943 20 72 35



J.A. MOGEL IKASTOLA 943 20 84 87



Eskola honetan  
batu egiten  
ditugu

aniztasuna,  
bizikidetza  
eta hurbiltasuna

**aurrematrikula  
egiteko epea**

eta  
biderkatu  
egiten ditugu

zure gaitasunak,  
zure balioak  
eta zure aukerak



euskal eskola publikoa

PERTSONA HELBURU

EUSKO JIRIARLARITZA GOBIERNO VASCO

Online prematrikula: [www.hezkuntza.net](http://www.hezkuntza.net)

## 2015-2016 IKASTURTEA



SAN ANDRES 943 20 79 95



URKIZU 943 12 17 78